

KANALAK

Gure proiektua ezagutzera emateko, hainbat modu ezberdin erabiltzen ditugu: interneteko teknikak eta publizitate metodo tradizionalak.

Lehenik eta behin, gure webgune propioa daukagu, [https:// txakurrenirribarrea.eus](https://txakurrenirribarrea.eus). Horrek gure bezeroei ahalik eta informazio gehien helarazteko eta gure proiektua ezagutzera emateko komunikazio-kanal onena dela deritzogu. Bertan, gure ekintzen informazio guztia jasotzeaz gain (egutegi eta ordutegia, ekintzen emaitzak, lekua, helburua...), online ekarpenak egiten uzten du, horrela, etxetik eta mugitu gabe, donazioak ahalik eta azkarren eta errazen egin ahalko dira.

Bestalde, zenbait sare-sozial ere baditugu, hala nola instagram (@txakurrenirribarrea), twitter (@txakurrenirribarrea) eta facebook (@txarrenirribarrea), berri guztiak modu eguneratu eta erakargarri batean ikusteko aukera ematen dutenak.

Azkenik, gmail bat sortu dugu (txakurrenirribarrea@gmail.eus) eguneroko berriak gure bezeroei helarazteko modu pertsonalizatu batean.

Publizitateari dagokionez, jardueren berri emateko, beharrezko alde aurretiko epearekin leku estrategikoetan gure ekintzen inguruko kartelak jarriko ditugu informazio interesgarri guztiarekin. Horretaz, gain, auzoetako merkataritza guneetan flyerrak utziko ditugu.

